

## Herri-musikak sortzeko laguntzen oinarriak

### 2020ko deialdia

Deialdi honen guztizko diru-kopurua 30.000 € da

#### Lehenengoa: eskatzaileak

SGAE Fundazioak **SGAeko autore bazkideek** aurkeztutako laguntzen eskabideak aztertuko ditu, betiere euren jarduera nagusia sinfonikoa ez den musika sortzeko edo letrak idazteko arloan garatzen badute. Hartara, honako hauexetarako egindako proposamenak hartuko dira kontuan: popa, rocka, jazz, ikus-entzunezkoetarako musika, musika elektronikoa, flamenkoa, world musica, saiakuntzazkoa, hip hopa... Gaur egungo musika klasikoaren arloan kokatutako proposamenak (hau da, orkestrarako lanak, ganberakoak eta kontzertuetarako beste formatu batzuk) *Sorkuntzarako Pizgarrien Sistemaren* bidez atendituko dira.

SGAE Fundazioak eskainitako laguntza guztiak kontuan hartuta, autore berak ezin izango du laguntza bat baino gehiago jaso urte berean. Dena dela, badago salbuespenik, bateragarria izango delako *Nazioartean sustatzeko bidaietarako laguntzak* eta beste laguntza batzuk jasotzea.

#### Bigarrena: proiektuen tipologia

Deialdi honetan, SGAeko autore bazkideek bidalitako proiektuek parte ahal izango dute (lehenengo klausula ikusi), betiere euren helburua musika-lan bat edo batzuk sortzea bada, musika bera sortzen denean, letrak idazten direnean edo bi jardun horietako bat bakarrik garatzen denean. Laguntzak honen helburua ez da erregistro ekoizpen kostuak estaltzeko. Hainbat egileko lan-proiektuen kasuan, egileetako bakar batek baino ezingo du laguntza eskatu, gainerakoen baimenarekin eta haien izen eta ordezkartzan. Hainbat egileko lan-proiektuaren eskaera hori hautatzen bada, esleitutako zenbatekoa SGAE Fundazioak banatuko du, zati berdinetan, lanaren egile guztien artean. Egileek kasuan kasuko hitzarmena sinatu beharko dute SGAE Fundazioarekin laguntza kobratzeko.

Proiektuarekin batera, bere azalpena aurkeztu beharko da, eta, bertan, sorkuntza-prozesuari begira dokumentazioaren eta ikerketaren arloan zer lan egin diren adierazi beharko da xehetasunez. Proiektua 2020ko urtarrilaren 1aren eta 2021ko martxoaren 31ren garatu beharko da.

Proiektu bera ezin izango da SGAE Fundazioko deialdi batean baino gehiagotan aurkeztu.

#### Hirugarrena: SGAE Fundazioaren ekarpena

Eskabide bakoitzerako zenbatekoa ezin izango da 2.000 eurotik gorakoa izan (zergak barne). Ordainketa oinarri hauetako zortzigarren klausulan zehaztutakoaren arabera egin beharko da hitzarmenarekin lotutako ordainagiriaren bidez, eta PFEZko kasuan kasuko atxikipenak ezarriko dira.

#### Laugarrena: agiriak

Eskaerekin batera honako agiri hauek egon beharko dira:

1. Behar bezala betetako eskabide-orria.

2. NAN/AIZ/pasaportearen kopia.
3. Eskatzailearen CVa.
4. Laguntzaren helburu izango den sorkuntza-proiektuaren azalpena eta kronograma.
5. Kostuen aurrekontu xehea.
6. Beste erakunde batzuen lankidetzaren ziurtagiria, hala badagokio.
7. Eskatzaileak sinatutako baimena, SGAE Fundazioak deialdi honen esparruan haren datu pertsonalak erabil ditzan. Aurkeztu beharreko baimen-eredua SGAE Fundazioaren webgunean dago eskuragarri, laguntza honen deialdiaren atalean.

#### **Bosgarrena: ebaluaziorako irizpideak**

Jasotako proiektuak ebaluatzeko, bereziki alderdi hauek aintzat hartuko dira:

1. Autorearen eta gizarte osoaren arteko harremana sustatzea, autore-eskubidearen gaineko pedagogia soziala suspertzea eta kultura eskuratzeko aukera bultzatzea.
2. SGAE Fundazioak lantzen duen erreperitorio osoan, adierazpen artistiko berriak eta diziplina anitzeko proiektuak sustatzea.
3. Beste instituzio eta erakunde batzuekin lan egitea.
4. Emakume autoreen partaidetza bultzatzea.

Horrez gain, aurkeztutako aurrekontuen arabera proiektuak daukan bideragarritasuna ere hartuko da kontuan, baita gizartean zein kulturatan izan dezakeen oihartzuna eta, hala badagokio, laguntza hauen bidez esleitutako baliabideen ezarpena ere.

#### **Seigarrena: eskabideen aurkezpena eta epea**

1. Eskaeraren inprimakia SGAE Fundazioaren webgunean egongo da eskuragarri: [www.fundacionsgae.org](http://www.fundacionsgae.org). Inprimakiaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta eremu guztiak bete beharko dira. SGAE Fundazioak eskaera guztiak jaso izana adieraziko du, eta falta diren agiriak jakinaraziko dizkie dokumentazio osoa aurkeztu ez dutenei. Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia ez dagoela adierazten dioten eskatzaileak 15 eguneko gehieneko epea izango du eskaera zuzentzeko, SGAE Fundazioak dokumenturen bat falta dela jakinarazten dien egunetik hasita. Eskaera adierazitako epean zuzentzen ez badute, ez da aintzat hartuko.
2. Musika-lan herrikoiak sortzeko laguntzen 2020ko lehen deialdirako eskaerak aurkezteko epea 2020ko otsailaren 25ean (asteartea) hasiko da, eta irekita egongo da 2020ko azaroaren 27ko (ostirala) 24:00ak arte. Ez dira aintzat hartuko epe horretatik kanpo heltzen diren eskaerak.

#### **Zazpigarrena:eskaeren ebazpena eta prozedura**

1. Ebaluazio-batzorde bat arduratuko da arauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.
2. Batzordeak laguntzak emango dituen erabakiko du eta erabakia interesdunei idatziz jakinaraziko die.
3. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

#### **Zortzigarrena: lankidetzaren gauzapena**

SGAE Fundazioak eta onartutako proiektua duen eskatzaileak lankidetzeta-hitzarmen berezia sinatuko dute, eta, bertan, ezinbestean agertu beharko dira agiri honetan zehaztutako oinarriak eta ondoren aipatuko dugun informazioa:

1. Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
2. Proiektua hasteko eta amaitzeko epea.
3. Esleitutako laguntzaren zenbatekoa.
4. Ordaintzeko modua.
5. Proiektuaren jarraipena (txostena, ebaluazioa eta SGAE Fundazioaren irudi korporatiboa daraman materiala eta azken memoria).
6. Laguntza honi esker SGAE en erregistratutako eta abian den lanaren berri SGAE Fundazioari ematearen aldeko konprometzua.

SGAE Fundazioak laguntzaren onuradunari eskatuko dio hitzarmena formalizatzeko beharrezko dokumentazioa. Dokumentazio hori helarazteko gehieneko epea bi (2) hilabete izango da, SGAE Fundazioak hori eskatzen duenetik. Hautatutako pertsonak ez badu dokumentazioa epe horretan helarazten, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du. Dokumentu guztiak aldean artean sinatuko den hitzarmenaren atal bereizezina izango dira, eta ez dira itzuliko.

Halaber, SGAE Fundazioak laguntzaren onuradunari helaraziko dio aldeek sinatu beharreko hitzarmena. Onuradunak gehienez bi (2) hilabete epea izango du hitzarmenaren aleak sinatuta itzultzeko, laguntza kobratzeko ordainketa-agiriarekin edo fakturarekin batera (kasuaren arabera). Onuradunak hitzarmena edo ordainketarako dokumentua edo faktura aipatutako epean helarazten ez baditu, laguntza galduko du.

#### **Bederatzigarrena: norberaren datuak isilpean gorde eta babestu beharra**

Proiektuaren kudeaketan aldeek ematen duten informazio guztia konfidentziala da eta ezingo zaie hirugarrenei ezagutzera eman. Era berean, ezingo da erabili ezarritako helburuetarako ez bada, indarreko legeriak zehaztutako salbuespenetarako ez ezik.

Eskatzaileak borondatez emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira, eta laguntzen deialdi honetan eskatzailearen parte-hartzea kudeatzeko erabiliko dira bakarrik. Datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidearen titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, erabilera mugatzeko, beste norabait eramateko eta horien aurka egiteko, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko ere. Horiek erabiltzeko helbide honetara idatz dezake: SGAE Fundazioa, zerbitzu juridikoen arreta, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. Idazkiak izena, abizena eta baliatutako eskubidea adierazi beharko ditu, eta NAN/AIZ edo pasaportearen kopiarekin batera aurkeztu beharko da. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat joko ditu eta usteko du haren egungo egoerarekin bat datozela. Interesduna behartuta dago aldaketak jakinaraztera, horiek gertatzen diren mementotik aurrera.

#### **Hamargarrena: arau orokorrak**

1. Eskatzaileak, eskaera aurkezten duenean, agiri honetan ezarritako baldintzak eta oinarriak isilbidez onartzen ditu.
2. Eskatzaileak ez dio SGAE Fundazioari inolako erantzukizunik egotziko, proiektua egiteko eta garatzeko orduan indarreko legeria edonola urratzen duenean.

Informazio gehiago: [informacion@fundacionsgae.org](mailto:informacion@fundacionsgae.org)